**Osakidetza**
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIak- Gurutzetako Plaza,12 (Barakaldo) – Lehen Mailako eta Ospitaleko arreta ematen duen Osakidetzako osasun-erakundea da, erreferentziako eta goi mailako zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituena. **Lan egiten dugu** herritarren **osasuna** hobetzeko, eta **ezagutza** zein **berrikuntza** baliagarria sortzeko, betiere, **jasangarritasuna** jomuga. ESIko gerentziak Erantzukizun Sozialaren alde egiten du, beraz, gure ingurumenarekiko konpromisoa irmoa da, etorkizunean ere gure bezeroen asebetetzea bermatzeko helburuarekin. Gure ingurumen-politika oinarri hauetan laburbiltzen da:



- Ingurumenarekiko konpromisoa hartzea eta gure jarduerak sortutako inpaktua ahalik eta gehien murrizten saiatzea. Horretarako, ingurumenarekin lotutako hobekuntza-ekintzak txertatzen ditugu gure eguneroko eginkizunetan, **Ingurumen Kudeaketako Sistema baten Diseinuaren eta Inplementazioa**ren bidez.
- Ingurumen Kudeaketako Sistema hori behar bezala egituratu eta jasotzea **Ingurumen Kudeaketako Eskuliburu** batean, zeina ingurumen-jokabidearen **etengabeko hobekuntza**ko konpromisoari eta aldizkako barne ikuskaritzei lotuta dagoen.
- Erakundeari esparru eta baliabide egokiak eskaintzea, urtero **ingurumen helburuak, xedeak eta programak** ezarri eta berrikusteko. Horretarako, Ingurumen Politika gure jardueraren garapenean txertatuko da, eta ingurumen-irizpideak kontuan hartuko dira bai erabakiak hartzerakoan bai ESIaren Kudeaketako plangintza-prozesuetan.
- Langile guztiei informazioa jasotzeko eta parte-hartzeko eskubidea bermatzea, haien jokabideak ingurumenarekiko gure konpromisoaren isla izan daitezen: ingurumena babestea, kutsadura prebenitzea, baliabideen ustiapen jasangarria sustatzea, klima-aldaketa arindu eta egokitzea, eta bioaniztasuna nahiz ekosistemak babestea.
- Indarreko ingurumen-araudiak eta legedia betetzen direla bermatzea, bai eta gure erakundeak bere gain hartu litzakeen gainerako betekizunak ere.
- Ingurumen-politika jendearen, hornitzaileen eta azpikontraten eskura jartzea, horiek ere Ingurumenaren kontserbazioan inplikatu daitezen, ingurua errespetatzen duten praktikak garatuz.

La OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, con dirección en Plaza de Cruces,12 (Barakaldo), es una organización sanitaria de Osakidetza, que presta atención Primaria y Hospitalaria, con servicios altamente especializados y referentes. **Trabajamos para** mejorar la **salud** de la ciudadanía y generar **conocimiento** e **innovación** útil para la **sostenibilidad** del sistema sanitario y la sociedad. La gerencia de la OSI manifiesta la apuesta de la Organización por la Responsabilidad Social, y por lo tanto nuestro compromiso con el entorno medioambiental, con el fin de poder seguir garantizando en el futuro la satisfacción de nuestros clientes, y sintetiza nuestra política ambiental en los siguientes principios:

- Asumir el compromiso con el medio ambiente y lograr disminuir al máximo el impacto generado por nuestra actividad. Para ello incorporamos en la gestión diaria acciones de mejora en relación al medioambiente mediante el **Diseño e Implementación de un Sistema de Gestión Ambiental**.
- Mantener dicho Sistema de Gestión Ambiental convenientemente estructurado, en un **Manual de Gestión Ambiental** sujeto a un compromiso de **mejora continua** del comportamiento medioambiental y las correspondientes auditorias internas periódicas.
- Dotar a la Organización del marco y recursos adecuados que permitan establecer y revisar anualmente **objetivos, metas y programas medioambientales**, incorporando la Política Ambiental establecida al desarrollo de nuestra actividad y promoviendo la incorporación de criterios ambientales en la toma de decisiones y procesos de planificación propios de la Gestión de la OSI.
- Garantizar la información y la posibilidad de participación a todo el personal para que su comportamiento refleje nuestro compromiso medioambiental de proteger el medio ambiente, prevenir la contaminación, fomentar el uso sostenible de los recursos, la mitigación y adaptación al cambio climático y la protección de la biodiversidad y de los ecosistemas.
- Garantizar el cumplimiento de las normativas y legislación medioambiental que sean de aplicación, así como otros requisitos que la organización suscriba.
- Mantener la política ambiental a disposición del publico, proveedores y subcontratas, fomentando la implicación de los mismos en la conservación del Medio Ambiente mediante el desarrollo de prácticas respetuosas con el entorno.

Osakidetza
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI
...ENKARTERRI-CRUCES
GERENCIA

*Santiago Rabanal Retolaza*
*Zuzendari Gerentea / Director Gerente*
*2017ko azaroa / Noviembre de 2017*